

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aurelio Abaunza Bereziartua

*Abadiño
Bizkaia (1929)*

Aurkibidea



Biografia



Sagasta auzoko Ardantza baserriko semea. Aita bertakoa zuen eta ama Orozketakoa (lurreta). Gerra Zibilean Larraskitu aldean errefuxiatuta egon ostean joan zen Mendiola auzoko eskolara. Gaztetako neska laguntzeak eta erromeriak, etxean egiten zuten txakolina eta sagardoa, karobiak, txondorrak, gari eta arto lanak, erreka arrantza... izan zituen berbagai, besteak beste, bere auzokoa den [Juan Abaunza](#) gaz batera. Argazkian ezkerrean agertzen dena da Aurelio.

Zintak

ABD-020

- **Proiektua:** Abadiñoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-23
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

ABD-021

- **Proiektua:** Abadiñoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-23
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ABD-022

- **Proiektua:** Abadiñoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-23
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Etxean zein kanpoan lanean

- **Erref:** ABD-020/004
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Etiket kanpo zortzi edo hamar ordu lan egin ostean, etxean ere lan egin behar izaten zuten. Etiket kanpora basoan edo edozein lekutan egiten zuten lan. Aurelio 14 urteaz Matiena auzoko eta lurreta arteko errepidea egiten aritu zen, bi urtez ibili zen bertan. Gero paper-lantegian eta basolanetan ibili zen. Azken 29 urteetan Atxarteko harrobian aritu zen. Hala ere, etxean ere beti zuten lana, kortan zein soloan.

2. Harrobian zein basolanetan eskuz

- **Erref:** ABD-020/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Atxarteko harrobian ibili zen lanean 29 urtez. Han zein lan egiten zuen. Lehen harri-zulatzailer lanak eskuz egiten ziren. Basolanak ere eskuz egiten ziren: gaur egungo motozerraren ordezkariak erabiltzen zuten.

3. Autorik ezean, edonora bizikletaz edo oinez

- **Erref:** ABD-020/006
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:11:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Aureliok ez du autorik erabili, traktorea bai. 80 urtera arte bizikletaz ibili da, edonora bizikletaz joaten zen. Bizikleta izan aurretik, bizikleta erosteko dirua aurreratu arte, oinez joaten zen joan beharreko lekutara.

4. Irabazitako dirua etxean entregatu behar

- **Erref:** ABD-020/007
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:11:52. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Irabazitako jorrala etxean entregatu behar izaten zuen. Etxera ezkondu zen Aurelio eta orduan ere erdia gurasoei eman behar izaten zien.

5. Baserriak errentan

- **Erref:** ABD-020/009
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrietako errentak urtean behin ordaintzen zen. Urte bukaeran ordaintzen zen: Kontzesio Egunez edo Gabonetan. Basolanetan aritzeko eskubidea zuten, etxerako behar zutena ateratzeko (ira, egurra...), baina pinudia ugazabarena zen. Baserri asko mantentzeko era zen errentariak izatea, bestela jausita eta alperrik galduta egongo ziren horietako asko. Aurelio bere baserriko bosgarren belaunaldia da eta ordura arte ez dute tximiniarik izan, berak jarri zuen.

6. Tximiniarik gabeko baserria

- **Erref:** ABD-020/010
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:21:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Aurelio bere baserrian bizi den bosgarren belaunaldikoa da eta ordura arte ez dute tximiniarik izan, berak jarri zuen. Ordura arteko egitura zelako zen eta zelan bizi ziren azaltzen du. Aurrekoak errentan bizi ziren eta ugazabak ez zuen horrelako konponketarik egin.</p>

7. Errentan bizi arren, norberak konpondu behar etxea

- **Erref:** ABD-020/011
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:21:58. **Bukatu:** 00:23:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Aurelio bere baserrian bizi den bosgarren belaunaldikoa da. Aurrekoak errentan bizi ziren eta ugazabak ez zuen inolako konponketarik egiten etxean. Zerbait behar izanez gero, beraiek egin behar izaten zuten.

8. Lehengo baserriak; astoa logelan agertu zenekoa

- **Erref:** ABD-020/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:23:07. **Bukatu:** 00:24:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Baserrien egiturak asko aldatu dira. Juanek dio bere etxean gaur egun ezkaratza (sukaldea) dena, lehen korta zela. Aureliok gai horrekin lotutako anekdota bat kontatzen du: behin astoa etxe barruko kortan zegoela, atea zabalik aurkitu eta beheko solairuko logelako ohean zeudela ohean agertu zitzaien, apatxak ohean zituela.</p>

9. Baserrietako komunak eta garbiketak

- **Erref:** ABD-020/014
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:25:04. **Bukatu:** 00:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Aureliok bere etxeko komuna zelako zen kontatzen du, beti ezagutu du komuna etxean. Ez zuten komuneko paperik, baina topatzen ei zuten zegaz garbitu. Juanen etxean, ostera, komuna korta zen.

10. Bainugela eta garbiketa pertsonala

- **Erref:** ABD-020/015
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:32:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Bainugela osoa eta labadora 1975tik du Aureliok. Juanek dio ura izanez gero bainugela egitea ez zela hain gaitza, arazoa ura zela. Oraintsura arte izan dute falta hori Juanen etxean. Arropak garbitzera ere errekarara joaten ziren urik ez zutelako. Bainatu ere errekan eta balde batean egiten ziren. Elkarriketa garaian oraindik, Juanen etxean ez zuten dutxarik bainugelari, baina berak atontzen duen dutxa antzekoa.

11. Eskolan euskara galarazita

- **Erref:** ABD-020/018
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:39:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Maistra donostiarra zuten Mendiolako eskolan, baina erdalduna zen. Galarazita zuten euskaraz egitea. Gerraostean joan ziren biak eskolara, zazpi-zortzi urte izan arte ez baitziren eskolara joaten. Eskolatik irteterakoan beti izaten zuten baserriko lana zain.

12. Pentsamendua ere bekatu

- **Erref:** ABD-020/019
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:39:47. **Bukatu:** 00:42:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dotrina eskolan bertan jasotzen zuten. Abadea astean behin joaten zen Abadiñotik Mendiolako eskolara. Abadea Jaungoikoaren hurrengokoa zela dio Aureliok. Pentsamendua bekatua zen, dena zen bekatu.

13. Abadiñon dantza lotua galarazita

- **Erref:** ABD-020/021
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:42:32. **Bukatu:** 00:45:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Neska laguntzen nahi-nora joaten ziren. Aureliok Mendiolako neska batekin, Luziarekin, egin zuen bere lehen neska-laguntzea. Erromerietatik etxeranzko bidean laguntzen zien neskei mutilek. Gerraostean ez zien uzten helduta ("agarrauen") dantzan egite. Behin bertako soinulari batzuekin erromeria egin zuten, baina bat-batean herriko zinegotzi bat azaldu eta bertan beheran utzi behar izan zuten. Atxondoko Apatamonasterio auzoan eta Elorrion gramola egoten zen eta domeketan hara joaten ziren. Alkatea aldatu zen arte, Abadiñon ez zuten erromeriarik izan. Alkate berriagaz Durangotik ere jende asko etortzen omena zen Abadiñora.

14. Erromerietan korroz korro ordaindu behar

- **Erref:** ABD-020/022
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:45:57. **Bukatu:** 00:47:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Mutilek erromerian dantzan egiteagatik ordaindu egin behar izaten zuten, korro bakoitzean kobratzen zien. San Antoniotan goizez Urkiolara eta handik

Durangora joaten ziren. Urkiolan zazpi bat korro egoten ziren eta Durangoko Ezkurdiko parkean beste bizpahiru. Aureliok dio merienda baino garestiagoa zela dantza egitea.

15. Nesken kalabazak eta neska laguntzeak

- **Erref:** ABD-020/023
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:49:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Erromerietan neskatan egiten ahalegintzen ziren. Kalabazak jaso arren, beste neska asko egoten ziren eta ez zuten dantza egiteko arazorik izaten. Aureliok gogoan du behin neska bati lagundu ostean beste mutil bat haserretu zitzaionekoa.

16. Karobian karea zelan egin

- **Erref:** ABD-020/027
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:52:04. **Bukatu:** 00:54:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

Karobitik hartutako karia gauza askotarako erabiltzen zen. Karea zelan lortzen zen azaltzen dute pasarte honetan.

17. Ikatza txondorrean zelan egin

- **Erref:** ABD-020/028
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:54:04. **Bukatu:** 00:58:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Ikatza eta karea egitea antzerakoa dela dio Aureliok. Ikatza egiteko egurrarekin txondorra egin behar da. Prozesua azaltzen dute pausuz pausu. Aurelioren etxean askotan egiten zuren. Batez ere pagoa eta haritza erabiltzen zuten, pinua izan ezik edozein egurrek balio ei du. Orduan ez zegoen pinudirik inguruetan. Txondorraren ondoan txabola egin eta bertan egin behar izaten zuen lo ikazkinak. Adi egotea garrantzitsua da, ondo zainduta.

18. Ikatza noiz eta zelan atera

- **Erref:** ABD-020/029
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:58:17. **Bukatu:** 00:59:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Txondorrean ikatza egin eta gero zelan dakigu ateratzeko prest dagoela? Aurelioren etxean askotan egin izan dute ikatza eta horri buruzko azalpenak eman zizkigun. Zakueta sartzen zuten txondorretik ateratako ikatza.

19. Bideak aitzurrarekin zabaldu

- **Erref:** ABD-020/031
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:01:12. **Bukatu:** 01:02:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako muga adierazten duen mugarrian dagoen monumentuko materiala Atxartetik eraman zituzten. Lehenengo kamioia pasatzeko bidea eurek zabaldu zuten aitzurrarekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com